Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Abeltzaintza Zerbitzua / Servicio de Ganadería**
**ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA**
**c/ Diputación 13- 01001- VITORIA-GASTEIZ**
**Tel: 945 18 18 18 .Fax: 945 18 18 34**
**www:servicioganaderia.araba.eus**



# ABELTZAINTZA ZERBITZUA

## 2017ko JARDUNEN MEMORIA

**VITORIA-GASTEIZ 2018/02/28**

# Abeltzaintza zerbitzuaren 2017ko jardunen memoria

Abeltzaintza Zerbitzua AFAko Nekazaritza Sailera dago atxikita. Haren egitura eta eginkizunak 2012ko/64 Foru Dekretuaren bidez daude ezarrita. Eginkizun horiek honakoak dira batez ere: animalien ekoizpena hobetzea, abereen osasuna eta abeltzaintzako ekoizpen primarioaren kalitatearen eta higienearen kontrola egitea.

Abere ekoizpenari lotutako eginkizunetako batzuk abeltzainen elkarteek eta horien federazioak (ABERE kooperatiba) gauzatzen dituzte, AFAren kudeaketa agindu bitartez, lankidetza hitzarmenaren arabera.

Animalien osasun arloan egindako jarduerak Animalien Gaitzak Erauzteko edo Kontrolatzeko Programa Nazionalekin (PNEEAS) daude lotuta, zainketa aktiboko jardunen (abeltzaintzako saneamendu kanpainak) eta zainketa pasiboko beste jardun batzuen bidez, bai eta abereen mugimenduaren kontrolaren bidez ere. Horretarako, AFAk Abere S.Coop. enpresako albaitarien lankidetza du, zerbitzua emateko kontratua baitu 2020ra arte.

Animalien Ekoizpenari lotutako eginkizunetako batzuk abeltzainen elkarteek eta horien federazioak (SERGAL S. Coop.) burutzen dituzte, AFAk kudeatzeko ardura emanda. Jarduera horiek guztiek lankidetza hitzarmenen babesa dute.

Abeltzaintza Zerbitzuaren eginkizuna da, halaber, Arabako Lurralde Historikoaren abere ustiategietan Elikakatearen Kontrol Planaren baitako kontrolak egitea. Jardun multzo horren azken helburua da abeltzaintzako ekoizpenaren segurtasuna eta kalitatea bermatzea. Azken batean, helburua “baserritik mahaira” segurtasun printzipioa aplikatzen dela bermatzea da.

## 1. ABEREEN ERROLDA KUDEAKETA

Abereen errolda 2017ko abenduaren 31n.

**BEHIAK**

| | |
|---|---|
| **ABEREAK, GUZTIRA** | **42.233** |
| Esnetarako egokiak | 8.543 |
| Haragitarako egokiak | 33.690 |
| **USTIATEGIAK, GUZTIRA** | **762** |
| < 10 ABELBURU | 267 |
| >10 ABELBURU | 495 |
| Esnetarako egokiak | 80 |
| Haragitarako egokiak | 570 |

## ARDIAK

| ABEREAK, GUZTIRA | 51.236 |
| --- | --- |
| Esnetarako egokiak | 30.232 |
| Haragitarako egokiak | 21.004 |
| **USTIATEGIAK, GUZTIRA** | **660** |
| < 50 ABELBURU | 493 |
| >50 ABELBURU | 167 |
| Esnetarako egokiak | 80 |
| Haragitarako egokiak | 580 |

## AHUNTZAK

| ABEREAK, GUZTIRA | 3.953 |
| --- | --- |
| Esnetarako egokiak | 573 |
| Haragitarako egokiak | 3.380 |
| **USTIATEGIAK, GUZTIRA** | **354** |
| < 50 ABELBURU | 345 |
| >50 ABELBURU | 9 |
| Esnetarako egokiak | 2 |
| Haragitarako egokiak | 352 |

## TXERRIAK

| USTIATEGIAK, GUZTIRA | 97 | |
|---|---|---|
| TXERRIKUMEEN EKOIZPENA | 15 | 370 ugaltzaile |
| GIZENDEGIAK | 36 | 10.936 |
| UGALTZEKO USTIATEGIAK | 2 | 480 ugaltzaile |
| EKOIZPEN MISTOA | 44 | 272 haragitarako plaza |

## ZALDIAK

| ABEREAK, GUZTIRA<br>USTIATEGIAK, GUZTIRA | 6.699<br>1.035 |
|---|---|
| < 5 ABELBURU | 783 |
| 5 ETA10 ABELBURU BITARTEAN | 121 |
| >10 ABELBURU | 131 |

## ERLEAK

| USTIATEGIAK, GUZTIRA | USTIATEGIAK | ERLAUNTZAK |
|---|---|---|
| < 15 ERLAUNTZ (AUTOKONTSUMOA) | 164 | 1.230 |
| 15 ETA 150 ERLAUNTZA BITARTEAN | 170 | 6.143 |
| >150 ERLAUNTZ (PROFESIONALAK) | 2 | 653 |
| GUZTIRA | 336 | 8.026 |

## HEGAZTIAK

| USTIATEGIAK, GUZTIRA | 34 | ANIMALIAK |
|---|---|---|
| KAIOLET… | 2 | 266.300 |
| LANDAKO ARRAUTZEN EKOIZPENA | 10 | 45.436 |
| HARAGITARAKO EKOIZPENA | 18 | 22.675 |
| UGALTZAILEEN AURRERAKOEN HAZKUNTZA | 1 | 60.000 |
| ETXALDE ESPERIMENTALA | 1 | 2.000 |
| EHIZARAKO ESPEZIEAK EKOIZPENA | 2 | 34.000 eper<br>2.000 faisai<br>30.000 galeper |

## UNTXIAK

| USTIATEGIAK, GUZTIRA | 1 | UGALDUNAK |
|---|---|---|
| ERBIKUMEEN HARAGITARAKO EKOIZPENA | 1 | 900 |

## UR GEZAKO AKUIKULTURA

| ARRAIN HAZTEGIAK GUZTIRA | 1 | PUTZU KOPURUA |
|---|---|---|
| GIZAKIEK KONTSUMITZEKO GIZENKETA | 1 | 12 |

**Abeltzaintzako Erregistroarekin lotutako beste eginkizun batzuk dira:**

- ✓ Abeltzaintzako ustiategien erregistroaren (REGA) eta abere erroldako datu baseen kudeaketa

- ✓ **SITRAN** (Animalien Trazabilitaterako Sistema Integrala) funtsezko bi elementuk osatzen dute:
    - **RIIA**: banaka identifikatutako animalien erregistroa. Behi, ardi, ahuntz eta zaldi azienden identifikazio datuak jasotzen ditu.
    - **REMO**: Abereen Mugimenduen Erregistroa

## 2. ANIMALIEN OSASUN PROGRAMAK

Animalien gaixotasunen aurkako borroka Abeltzaintza Zerbitzuaren funtsezko eginkizunetako bat da. Gaixotasunak kontrolatzeko planak egun Elikakatearen Kontrol Planaren baitakoak dira.

Osasun plan horietako gehienak ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK KOOPERATIBA enpresari esleitutako kontratu publiko baten bitartez garatu eta gauzatzen dira, eta 2017an 868.314,5 € ordaindu zaizkio zerbitzu horiengatik.Egun animalien osasun programa hauek egiten dira:

### ➢ GAITZAK KONTROLATZEKO / ERAUZTEKO PROGRAMA NAZIONALAK

- Tuberkulosia.
- Behien bruzelosia
- Leukosia
- Perineumonía.
- Ardien eta ahuntzen bruzelosia
- Aujezsky-ren gaitza
- Txerri izurri klasikoa
- Afrikako txerri izurria
- Txerrien beha zuneko gaitza
- EEEETT.

### ➢ KONTROL-PROGRAMAK ETA ZAINKETA

- Hegaztien salmonella
- Hegaztien gripea
- Mihi urdina.
- Plan de Vigilancia Fauna Silvestre

## BESTE PROGRAMA BATZUK EDO OSASUN-PLANAK

Programa bakoitzaren datuak garrantzitsuenak dira:

### BEHIEN TUBERKULOSIA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 662 | 4 |
| ANIMALIAK | 33.705 | 12 |

### BEHIEN BRUZELOSIA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 627 | 0 |
| ANIMALIAK | 22.992 | 0 |

### BEHIEN LEUKOSIA ENZOOTIKOA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 110 | 0 |
| ANIMALIAK | 3.213 | 0 |

### BEHIEN PERIPNEUMONIA ENZOOTIKOA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 110 | 0 |
| ANIMALIAK | 3.213 | 0 |

## ARDIEN BRUZELOSIA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 331 | 0 |
| ANIMALIAK | 13.952 | 0 |

## AHUNTZEN BRUZELOSIA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 264 | 0 |
| ANIMALIAK | 3.095 | 0 |

## AHUNTZEN TUBERKULOSIA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 259 | 0 |
| ANIMALIAK | 3.359 | 0 |

## AUJEZSKY-REN GAITZA (TXERRIAK)

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 22 | 0 |
| ANIMALIAK | 1.255 | 0 |

## TXERRI IZURRI KLASIKOA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 11 | 0 |
| ANIMALIAK | 448 | 0 |

## TXERRI IZURRI AFRIKARRA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 11 | 0 |
| ANIMALIAK | 407 | 0 |

## TXERRIEN BEHAZUNEKO GAIXOTASUNA

| | IKERKETATUAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| UKUILUAK | 11 | 0 |
| ANIMALIAK | 448 | 0 |

## SALMONELLA HEGAZTI USTIATEGIETAN

| | IKUSKATUTAKO USTIATEGIAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| ERRULEAK | 11 | 0 |
| BROILERS USTIATEGIAK | 6 | 1 |

## TRANSMITITU DAITEZKEEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAK

Abere ustiategietan transmititu daitezkeen entzefalopatia espongiformeak kontrolatzeko programa 72 hilabetetik gorako behi hilak eta 18 hilabetetik gorako ardi eta ahuntzak aztertuta egiten da.
Laginak Gorpuak Jasotzeko Zerbitzuak, EURIA SL enpresaren bitartez, ustiategietan jasotako gorpuetatik atera dira, eta NEIKERrek aztertu ditu (Derio, Bizkaia)

| | AZTERTUTAKOAK | POSITIBOAK |
|---|---|---|
| ANIMALIAK | 331 BEHI, 97 AHUNTZ<br>202 ARDI | 1 ARDI |

- Ardi batek positibo eman zuen Scrapi Atipikoan

## ➢ BASA FAUNAREN OSASUN KONTROLERAKO PLANA

1. Abeltzaintza Zerbitzuak, Arabako Ehiza Barruti Elkarteekin, horien kabinete teknikoekin eta ehiza barrutiekin elkarlanean, honako lagin hauek aztertu ditu:

| | Lagin kopurua | Lagin mota | Kontrolatu beharreko gaixotasunak | Emaitza |
|---|---|---|---|---|
| **BASURDEA** | 66 | Serumak<br>Erraiak | TIA,TIK, EA (seruma)<br>TB (erraiak)<br>Bruzelosia. (erraiak) | Positibo 1 |
| **ORKATZA** | 8 | Serumak<br>Erraiak | MU (serumak)<br>TB (erraiak)<br>Bruz. (erraiak) | Negatiboa |
| **OREINA** | 48 | Serumak<br>Erraiak | LA (seruma)<br>TBC (erraia)<br>Bruc. (erraia) | Psositibo 1 |
| **HARAGIJALEAK** | 6 | Gorpua | Mukiera (seruma)<br>TB (erraia)<br>Hazteria (larrua, seruma)<br>Hidatidosia (gorotzak, seruma) | Negatiboa |
| **LAGOMORFOAK** | 3 | Erraiak | Turalemia | Negatiboa |
| **HEGAZTIAK** | 12* | Gorpuak<br>Kloaka isipuak | Hegazti gripea (kloaka isipuak)<br>Niloko sukarra (kloaka isipuak) | Negatiboa |

* Hegazti gripearen zaintza pasiboa ingurune naturalean jasotako gorpuetan eta Martiodako Basa Fauna Leheneratzeko Zentroak bidalitako laginak (Ingurumen Saila).

2. Horrez gain, hondakin zinegetikoak jasotzeko edukiontzi sarea (SANDACHI) ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko ehiztariek erabil ditzaten. Egun, 29 edukiontzi daude lurralde historiko osoan. 2016-2017 denboraldi zinegetikoan, zerbitzuaren jarduera honako hau izan zen:

| Espeziea | Basurdea | Oreina | Orkatza | Azeria | Identifikatu gabea |
|---|---|---|---|---|---|
| **Jasotako Kg / Animaliak** | 5.332 / 408 | 900 / 41 | 1.208 / 63 | 13 | 2 |
| **ABISUAK, GUZTIRA** | 170 | | | | |

## BESTE OSASUN PLAN BATZUK

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren bidez onespena eman zitzaien abere arrazak, animalien osasuna eta animalia ekoizpena hobetzeko programak kudeatzeko abeltzaintzako diru laguntzak arautzeko oinarriei eta 2017ko deialdiari, eta ordutik, hainbat erakunde eta elkartek osasun planak gauzatu dituzte animalien gaixotasunak kontrolatzeko. 2017. urtean hasi dira planak garatzen eta hurrengo urteetan ere horretan jarraituko dute.
2017. urtean plan horiei esleitutako diru kopurua **35.244,21 €** izan da.

Hona hemen aurkeztutako planen laburpena:

| Entitatea | Abeltzain-kopurua | Animalia-kopurua | Espeziea | Kontrolatu beharreko gaixotasunak |
|---|---|---|---|---|
| **GORBEIA** | 33 | 1.483 | Behi azienda | Trichomoniasis-Campilobacteriosis, IBR, BVD y Paratuberculosis |
| **GIBIJO** | 25 | 2.024 | Behi azienda | Trichomoniasis-Campilobacteriosis, IBR, BVD y Paratuberculosis |
| **BADAYA** | 21 | 1.613 | Behi azienda | Trichomoniasis-Campilobacteriosis, IBR, BVD y Paratuberculosis |
| **BAJERRO-LUNA** | 7 | 888 | Behi azienda | Trichomoniasis-Campilobacteriosis, IBR, BVD y Paratuberculosis |
| **APIAL** | 344 | 7.638 erlauntza | Erle azienda | Varroasis, Loques, Acosferosis, Nosema, Acarapis, Aethinosis. |
| **APIGOR** | 39 | 1.184 | Erle azienda | Varroasis, Loques, Acosferosis, Nosema, Acarapis, Aethinosis. |
| **ASCUAL** | 1 | 900 | Untxi azienda | Gaixotasun batzuk |

## 3. ESKALMENDIKO LABORATEGIA

Eskalmendiko laborategia organikoki Abeltzaintza Zerbitzuan dago sartuta. Atal bi dauzka: Animalia Osasunaren Laborategia eta Nekazaritza Laborategia.

Laborategi horrek Egiaztatze Erakunde Nazionalaren ziurtagiria dauka (UNE-EN ISO/IEC 17025:2005) analitika hauek egiteko:

- ✓ Behi, ardi eta ahuntz aziendaren seruma. *Brucella*ren aurkako antigorputzak detektatzea osagarriaren finkapenaren bidez
- ✓ Behi, ardi eta ahuntz aziendaren seruma. *Brucella*ren antigorputzak plakan detektatzea Bengala Arrosaren bidez
- ✓ Behi aziendaren seruma eta esnea. *Brucella*ren aurkako antigorputzak detektatzea inmunosaiakuntzaren bidez (ELISA)
- ✓ Behi aziendaren gorotzak. *Mycobacterium avium subsp. Paratuberculosis* detektatzea PCR bidez denbora errealean.
- ✓ Pentsuak eta horien lehengaiak. Animalia jatorriko osagaiak detektatzea azterketa mikroskopikoaren bidez.

### ANIMALIA OSASUNAREN ARLOAN PROZESATUTAKO LAGINAK

| PROBA | ANÁLISI KOPURUA |
|---|---|
| TUBERCULOSIA | 15 |
| BRUZELOSIA | 38.990 |
| LEUKOSIA | 3.216 |
| PERINEUMONIA | 3.227 |
| AUJESZKY-REN GAITZA | 1.041 |
| TIA | 469 |
| TIK | 534 |

| | |
|---|---|
| **GAIXOTASUN HEMORRAGIKOA** | 40 |
| **MIHI URDINA** | 313 |
| **TXERRIEN BEHAZUNEKO GAIXOTASUNA** | 532 |
| **BRUCELLA OVIS** | 1946 |
| **PARATUBERKULOSIA** | 1.807 |
| **Q SUKARRA (*COXIELLA BURNETTI*)** | 659 |
| **BEHIEN INFEKZIOZKO ERRINOTRAKEITISA** | 662 |
| **BEHIEN BEHERAKO BIRALA** | 823 |
| **AGALAXIA KUTSAKORRA** | 22 |
| ***NEOSPORA CANINUM*** | 1.019 |
| ***BORDER DISEASE*** | 775 |

| ESPEZIEA | LAGIN KOPURUA |
|---|---|
| **ZERBIDOAK** | **184** |
| **BASURDEAK** | **186** |
| **AHUNTZAK** | **3.805** |
| **TXERRIAK** | **2.477** |
| **ARDIAK** | **18.487** |
| **BEHIAK** | **31.005** |
| **GUZTIRA** | **56.144** |

| TEKNIKA | LAGIN KOPURUA |
|---|---|
| BENGALAKO ARROSA | 155 |
| INMUNOENTZIMO SAIAKUNTZA | 13.314 |
| OSAGARRIAREN FINKAPENA | 3.483 |
| PCR DENBORA ERREALEAN | 684 |
| INMUNODIFUDION BIKOITZA AGAR GELEAN | 20 |

| SERUM LAGIN DESBERDINEN KOPURUA | BANAKAKOA |
|---|---|
| ESNEA | 155 |
| GOROZKIAK | 232 |
| PREPUZIO GARBIKETA | 32 |
| ISIPUAK | 16 |

## ANIMALIA ELIKADURAREN LABORATEGIAN PROZESATUTAKO LAGINAK

| PROBA | ANALISI KOPURUA |
|---|---|
| Aterakin lehorra | 492 |
| Errautsak | 100 |
| Kaltzioa | 90 |
| Fosforoa | 88 |
| Potasioa | 71 |
| Magnesioa | 51 |
| Koipea (aterakin etereoa) hidrolisirik gabe | 9 |
| Gantza (aterakin etereoa) aldez aurretiko hidrolisiarekin | 5 |

| | |
|---|---|
| Proteina gordina | 165 |
| Proteina digerigarria | 41 |
| Zuntz gordina | 36 |
| Zuntz azido detergentea | 12 |
| Zuntz azido detergente aldatua | 5 |
| Zuntz neutro detergentea | 46 |
| Digerigarritasun entzimatikoa | 37 |
| pH | 1 |
| Nitrogeno amoniakala | 1 |
| Nitrogenorik gabeko aterakinak | 3 |
| Energia metabolizagarria | 2 |
| Laginaren pisua (gordina bider garbia) | 20 |
| Lehorketa 70°C-ra | 3 |
| Hezetasuna | 12 |
| Erneketa | 357 |
| Saposinak hautematea | 1 |
| Pisu espezifikoa | 3 |
| GUZTIRA | 10 |
| | 1661 |

| HURBILEKO INFRAGORRIAREKIN (NIR) EGINDAKO PROBAK | ANALISI KOPURUA |
|---|---|
| MATERIA LEHORRA | 79 |
| PROTEINA GORDINA | 79 |
| ZUNTZ GORDINA | 117 |
| ZUNTZ AZIDO DETERGENTEA | 117 |
| LIGNINA AZIDO DETERGENTEA | 117 |
| ZUNTZ NEUTRO DETERGENTEA | 117 |
| GUZTIRA | 743 |

| PROBA | ANALISI KOPURUA |
|---|---|
| HARAGI/HEZUR IRINEN PRESENTZIA | 12 |
| ARRAIN IRINAREN PRESENTZIA | 13 |

## ERREMOLATXA ARLOAN PROZESATUTAKO LAGINAK

| PROBA | ANALISI KOPURUA |
|---|---|
| SUSTRAI KOPURUA | 56 |
| LAGINAREN PISUA | 56 |
| SAKAROSA ABERASTASUNA | 56 |

| ENAC AKREDITAZIOAREN IRISMENA<br>ERANSKIN TEKNIKOA 813 ZK./LE 1699 | |
|---|---|
| **Behi, ardi eta ahuntz seruma** | Brucellaren aurkako antigorputzak hautematea osagarriaren finkapenaren bidez |
| **Behi, ardi eta ahuntz seruma** | Brucellaren aurkako antigorputzak hautematea plakan Bengalako Arrosaren bidez |
| **Behi seruma eta esnea** | Brucellaren antigorputzak hautematea plakan inmunosaiakuntzaren bidez (ELISA) |
| **Behi gorotzak** | Mycobacterium avium-a (azpiespeziea: Paratuberkulosia) denbora errealean hautematea PCR-ren bidez |
| **Pentsua eta horren lehengaiak** | Animalia jatorriko osagaiak hautematea azterketa mikroskopikoaren bidez |

❖ 53/2013 Errege Dekretua aplikatzeko ebazpenak. “Saiakuntzak egiteko eta beste zientzia helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabilitako animaliak babesteko aplikatu beharreko oinarrizko arauak”:

✓ Euskal Herriko Unibertsitateko 10 ikerketa proiektu balioetsi dira eta haien aldeko ebazpenak eman.
✓ Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultatean dagoen ukuilua (REGA erregistro zenbakia: ES010590019008) ikuskatu da, bat etorriz hazle, hornitzaile eta erabiltzeei, baita haien establezimenduei ere, kontrol eta ikuskapen erregularrak egiteko Arabako Foru Aldundiak daukan eskumenarekin, jakitearren ea betetzen den 53/2013 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen diren saiakuntzak egiteko eta beste zientzia helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabilitako animaliak babesteko aplikatu beharreko oinarrizko arauak.

❖ Ziurtagiria, aitortzen duena saiakuntzarako eta beste zientzia helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabili, hazi edo hornitutako animaliak erabiltzen dituzten langileek izan behar duten gaitasuna.

✓ Aldeko ebazpen bat eman da, animalien eutanasia betekizunak egin eta prozedurak egiteko karraskarietan.

## 4. ***ABELAZKUNTZA:***

Abelazkuntza arloaren helburu nagusia da Arabako lurralde historikoko abelazkuntzako ustiategien jasangarritasuna sustatzea, haien produkzio eraginkortasuna hobetuz.

Helburu hori lortzeko, Abeltzaintza Zerbitzuaren **estrategia** nagusiak dira:

- ✓ Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien **Nekazaritza Sailekiko koordinazioa**, EAEko ustiategietan abelazkuntza hobetzeko plan eraginkor eta homogeneoak gauzatzeko.

  Bide horretan elkarlan estua dago EJk partizipazioa duen entitate publiko zenbaitekin, **NEIKER, HAZI eta ELIKArekin,** zeinek ikerketa, nekazaritzako prestakuntza eta landa garapeneko eginkizunak betetzen baitituzte, abelazkuntzako produktuen elikagai kalitate eta segurtasuna hobetzeaz landara.

  Koordinazio horretarako, Arabako Abeltzaintza Zerbitzuak hainbat foro erkidetan parte hartzen du, hala nola abere arrazen batzordea, esnea kontrolatzeko euskal zentroa edo elikagai segurtasuna kudeatzeko batzordeak.

- ✓ **Arabako abeltzaintza elkarteekiko elkarlana**, eta Arabako abeltzaintzaren garapena bere helburuen artean duten beste entitate batzuekikoa, batez ere **UAGA** nekazaritza sindikatuarekikoa eta abeltzaintzako zerbitzu teknikoetako ABERE kooperatiba sozietatearekikoa.

  1982tik 2016ra etengabe sinatu dira **elkarlan hitzarmenak** Arabako abeltzaintza elkarteekin, 4 urterik behin berritzen zirelarik, eta, horien bidez, AFAk ordaindu izan ditu abelazkuntza hobetzeko programen ondoriozko gastuen zati handi bat.

  2017an, formula hori aldatu egin zen, eta, formula horren ordez, **54/2017 Foru Dekretua** argitaratu zen, abelazkuntza hobetzeko helburua duten **programa edo zerbitzuen kudeaketan laguntzeko lerroak** jasotzen dituena, hala nola:

- Errendimenduak kontrolatzeko programak
- Liburu genealogikoen kudeaketa
- Kontserbazio eta hobekuntza genetikoko programak.
- Ugalketa zerbitzua
- Esnearen kalitatea hobetzeko zerbitzua
- Kudeaketa tekniko eta ekonomikoko zerbitzua
- Zenbait arlotako aholkularitza.

**54/2017 FORU DEKRETU** horrek 5 laguntza lerro ezarri zituen:

- **Abere arrazen hautapen eta hobekuntza genetikorako programak** kudeatzeko laguntzen lerroa:

Programa horiek arraza bakoitzaren liburu genealogikoaren kudeaketan oinarritzen dira, eta erregistro horretan inskribatzen dira arraza horretako abereak, jaiotzen direnean, aita eta ama zein izan dituen jasoz.

Horrez gain, errendimenduen kontrol bat ere garatzen dute, hain zuzen, programan parte hartzen duten ustiategietako emeek lortu duten produkzioa sistematikoko neurtuz. Informazio horrekin, abere ugaltzaile baliotsuenak hautatzen dira, hurrengo belaunaldiko aitak eta amak izan daitezen.

2017an, Araban hobekuntza genetikoko programak gauzatu dituzten abeltzaintzako sei elkarteek **331.656 euroko** dirulaguntza jaso dute guztira:

| ESPEZIEA | ARRAZA | ELKARTEAK | Abeltzain kopurua | Abere ugaltzaileen kopurua |
|---|---|---|---|---|
| **Behi azienda:** | Frisiarra | ASGAFAL | 46 | 4.743 |
| | Piriniarra | ARPIEL | 68 | 2.262 |
| | Limousina | ALE | 33 | 1.095 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Txarolesa | ARTXAEL | 6 | 176 |
| **Ardi azienda** | Latxa | AGORALA | 37 | 14.060 |
| | Assaf | AGORASA | 3 | 1.500 |

❖ **Galzorian diren abeltzaintzako arraza autoktonoak kontserbatzeko programak** kudeatzeko laguntzen lerroa:

Programa horiek kontserbatu nahi den arraza bakoitzaren liburu genealogikoaren kudeaketan oinarritzen dira, eta bertan erregistratzen dira abere bakoitza jaiotzen denean ezagunak diren haren aurreko guztiak. Kasu honetan, ahaidetasun gradua kontrolatzen da, arriskuan den arrazako aleen artean dagoena. Hala, ahaidetasun txikiena duten aleen arteko estalaldiak planifikatu ahal dira, odolkidetasuna areagotu ez dadin, populazioaren bideragarritasun genetikoari eustearren.

2017an, Araban galzorian diren arrazak kontserbatzeko programak gauzatu dituzten abeltzaintzako sei elkarteek 65.405 euroko dirulaguntza jaso dute guztira:

| ESPEZIEA | ARRAZA | ELKARTEAK | Abeltzain kop: | Abere ugaltzaileen kopurua |
|---|---|---|---|---|
| **Behi azienda:** | Terreña | ARATEL | 23 | 838 |
| **Zaldi azienda:** | EHko mendiko zaldia | ASGAEQUINO | 72 | 1.491 |
| | Enkarterriko astoa | ARASEL | 11 | 65 |
| | Pottoka | POTTOKZALEAK | 6 | 66 |
| **Ardi azienda** | Sasiardi | ARASARDI | 3 | 251 |
| **Ahuntz azienda** | Azpigorri | ASAGRA | 7 | 199 |

❖ **Ustiategietako produktibitatea eta abelazkuntzako produktuen kalitatea areagotzeko abelazkuntza programak** kudeatzeko laguntzen lerroa, Hiru programa mota daude:

✓ **Ugalketa kontrolatzeko** programak. Ugalketa kontrolatzeko programen helburua da eme ugaltzaileen ugalkortasuna areagotzea, produkziorik gabeko aldiak ahalik eta laburrenak izan daitezen. Ernaltze diagnostikoak, ekografiak, hormonazko tratamenduak eta abar hartzen dituzte…

- ✓ **Este kalitateko** programak: Programa hauen helburua da esnearen kalitate kimiko, baktiriologikoak eta organoleptikoa areagotzea. Esnea jaisteko makinak berrikustea, esnea jaisteko errutina hobetzea, errape min subklinikoak hautematea, zelula somatikoak kontrolatzea, germenak isolatzea eta identifikatzea, antibiogramak, autotxertoak…

- ✓ Ustiategietako **osasuna hobetzeko** programak: eritasunak kontrolatzeko jardunak jasotzen dituzte, biosegurtasun eta profilaxiko neurriak ezartzea eta txerto bidezko tratamenduak eta parasitoen kontrako tratamenduak ezartzea…

2017an, guztira, produkzioa hobetzeko programetarako 33.729 euroko dirulaguntza eman zaie abelazkuntzako 7 elkarteei:

| ESPEZIEA | ELKARTEAK | Abeltzain kopurua | Abere ugaltzaileen kopurua |
|---|---|---|---|
| **Txerriak** | ASGAPOAL | 5 | 412 |
| **Okelatarako ardiak** | ASGOCAL: | 16 | 5.367 |
| **Erlezaintza** | APIAL | 413 | 8.749 |
| | APIGOR. | 39 | 1.184 |
| **Hegazti erruleen hazkuntza** | ASOGAL | 4 | 235.707 |
| **Untxi hazkuntza** | ASCUAL | 1 | 900 |
| **Okelatarako ardiak** | AVAMA | 60 | 5.600 |

- ❖ <u>Elikagai segurtasunaren eta kudeaketa ekonomikoaren arloan abeltzaintzako ustiategietantzako aholku zerbitzuen kudeaketarako dirulaguntza lerroak.</u> Gai hauei buruzko aholku teknikoa emateko zerbitzuak dira:
  - ✓ Lehen produkzioaren higienea.
  - ✓ Abereen ongizatea.
  - ✓ Albaitaritzako botiken erabilera arrazoizkoa.
  - ✓ Ongarriak eta gai fitosanitarioak erabiltzea.

- ✓ Hondakinen kudeaketa.
- ✓ Klima aldaketa.
- ✓ Uraren arrazoizko erabilera.
- ✓ Ekoizpen integratua.
- ✓ Ekoizpen ekologikoa:
- ✓ Kudeaketa tekniko-ekonomikoa.

2017an, zerbitzu hauek sustatzeko dirulaguntzetan, guztira, **30.000** euro ordaindu zaizkio ABEREri.

- ❖ **Abelazkuntzaren hobekuntzak zabaltzeko** laguntza lerroa: 2017an zehar, abelazkuntzako hainbat erakusketa eta lehiaketa egin ziren Arabako hainbat herritan, eta horien artean nabarmentzekoak dira:

- ✓ **Arkauteko nazio enkantea**, 2017ko apirilaren 23an egin zena, abeltzaintzaren sektoreko profesionalentzako. Eskua jasota enkantean lehiatzeko formularen bidez arraza hauetako abere ugaltzaileak jartzen dira salmentan: piriniarra, txarolesa, latxa arrazako ahari eta bildotsak eta Euskal Herriko mendi zaldiaren arrazako zaldikumeak.

- ✓ **Santiago feria,** 2017ko uztailaren 25ean ospatu zena. Arabako herritarren artean ezagutzera ematearren abelazkuntzako hobekuntza programen emaitzak, Gasteizen aurkezten dira abeltzaintzako arraza guztiak ordezkatzen dituzten abereak, hobekuntza edo kontserbazio programetan parte hartzen dutenak.

Bi jarduera hauetarako esleitutako dirulaguntzak, 2017an, bi ordainketa ekarri ditu, **18.000** eurokoa eta 8.631 eurokoa, hurrenez hurren.

Azkenik, abelazkuntzaren arloan abeltzaintzako ustiategietan baliatzen diren **baliabideen kontrolari** dagozkion eginkizunen barruan, bi kontrol mota egiten dira:

- ✓ Abeltzaintzako ustiategietan baliatzen den **material genetikoaren** kalitatearen kontrola.
- ✓ Animalien **elikaduraren** kontrola, bereziki kontrolatuz gai debekatuen erabilera.

## 5. *ELIKAKATEA KONTROLATZEKO PLANA*

### ❖ USTIATEGIAK KONTROLATZEKO IDENTIFIKAZIOARI ETA ERREGISTROARI BURUZKO PROGRAMA

| USTIATEGIAK | ARDIAK | BEHIAK |
|---|---|---|
| **KONTROL UNIBERTSOA** | 786 | 753 |
| **IKUSKATUAK** | 32 | 41 |
| **LURSAILAREN GAINEKO KONTROLETAN GORABEHERAK IZAN DITUZTENAK** | 9 | 37 |
| **ANIMALIA OSASUNAREN LEGEA EZ BETETZEAGATIK ESPEDIENTEA EGIN ZAIENAK** | 0 | 0 |
| **I+R EREMUAN BALDINTZAPEKOTASUNAREN ARAUDIA BETE EZ DUTENAK** | 0 | 14 |

### ❖ ANIMALIA ONGIZATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA

- **ANIMALIEN GARRAIOAN**

| | BEHIAK | ARDIAK | AHUNTZAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **ANIMALIAK** | 336 | 450 | 7 | 793 |
| **GARRAIOA** | 10 | 4 | 1 | 15 |
| **AGIRI KONTROLA** | 10 | 4 | 1 | 15 |

| | |
|---|---|
| Garraioan detektatutako arau hausteak | 2 |
| Ongizatearen araudia ez betetzeagatik espedientea egin zaien garraiolarien kopurua | 2 |

## BAIMENAK:

- Garraiolarien baimenak: 46 (14 berri eta 32 berritu)
- Garraiobideen baimenak: 53

- **ABELTZAINTZA USTIATEGIETAN**

| | IKUSKATU BEHARREKOAK | IKUSKATUAK | GORABEHERAK |
|---|---|---|---|
| **BEHIAK** | 570 | 19 | 1 |
| **ARDIAK** | 322 | 11 | 2 |
| **AHUNTZAK** | 53 | 2 | 0 |
| **TXERRIAK** | 20 | 1 | 0 |
| **HEGAZTIAK** | 20 | 1 | 0 |
| **ZALDIAK** | 53 | 5 | 1 |
| **UNTXIAK** | 1 | 1 | 0 |
| **AKUIKULTURA** | 1 | 0 | 0 |

## ❖ ABEREEN ELIKADURAREN KONTROL PROGRAMA

Foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren artean ezarritako Animalien Elikagaien Kontrol Planarekin bat etorriz, AFAri dagokio autokontsumorako pentsuak egiten dituzten eta 183/2005 Arautegiaren II. eranskinaren eremu barruan dauden abeltzaintza ustiategiak kontrolatzea; hau da, pentsua egitean siloratuta ez dauden aurrenahasketa eta gehigarriak erabiltzen dituzten ustiategiak.

2017. urtean egin diren animalia elikadura kontrolek arlo hauetan eragin dute:

- ✓ Lehengaien kalitatea
- ✓ Erabilitako produktuen segurtasuna
- ✓ Ekoizpenaren eta instalazioen higienea
- ✓ Lehengaien trazabilitatea eta erabilera egokia

Plan horren arabera, 2017ko ekitaldian, honako jarduera hauek egin dira:

**1.- Ustiategietan eginiko ikuskapenak:**

Abeltzaintza ustiategien lau ikuskapen egin dira; hain zuzen ere, hegaztien 2 ustiategitan eta behiak gizentzeko 2 ustiategitan.

Egindako lau ikuskapenetatik batean ere ez da aurkitu hutsik, eragozten duenik jarduera egiten jarraitzea.

**2.- Abeltzaintza ustiategietan hartutako laginen gainean eginiko analisiak:**

2017an, animalia elikaduran erabilitako lehengaien eta pentsuen analisi hauek egin dira:

- **PATak:** 2 lagin
- **MIKOTOXINAK:** 4 lagin
- **METAL ASTUNAK** (Cu eta Zn): 4 lagin

Analisi guztiak indarreko araudiarekin bat etorriz egin dira.

## ❖ LEHEN MAILAKO EKOIZPENAREN HIGIENEA KONTROLATZEKO PLANA

Plan honen helburua da elikakaterako produktuak ekoizten dituzten abeltzaintza ustiategietako ekoizpenaren higiene baldintzak egiaztatzea.

| ESPEZIEA | KONTROLATU BEHARREKO USTIATEGIAK | PROGRAMATUTAKO ETA GAUZATUTAKO KONTROLAK |
|---|---|---|
| HARAGITARAKO BEHIAK | 508 | 5 |
| HARAGITARAKO ARDIAK/AHUNTZAK | 146 / 28 | 2 |
| ESNETARAKO BEHIAK | 54 | 1 |
| ESNETARAKO ARDIAK/AHUNTZAK | 91 / 1 | 2 |
| TXERRIAK | 19 | 1 |
| ZALDIAK | 111 | 2 |
| HEGAZTIAK | 19 | 1 |
| UNTXIAK | 1 | 0 |

## ❖ HONDAKINAK IKERTZEKO PLAN NAZIONALA. (HIPN)

Animalia osasunean eta osasun publikoan eskumenak dituzten agintarien arteko baterako programa.

Elikakaterako animaliengan debekatutako substantziarik, kutsatzailerik, antibiotikorik eta beste medikamentu batzuk ez daudela bermatzea du helburu.

Arabako Abeltzaintza Zerbitzuak lagin hauek lortu ditu 2015eko ekitaldian abeltzaintza ustiategietan. Kasu guztietan, emaitzak araudiarekin bat etorri ziren. Programa hori osasun publikoak hiltegietan hildako animaliengandik hartutako laginei egindako analisiek osatzen dute.

| IKERTUTAKO SUBSTANTZIA | LAGIN KOPURUA |
|---|---|
| **ANABOLIZANTEAK** | 4 |
| **MIKROBIOEN AURKAKOAK** | 5 |
| **B-AGONISTAK** | 2 |
| **KLORANFENIKOLA** | 5 |
| **KORTIKOIDEAK** | 2 |
| **MIKOTOXINAK** | 2 |
| **ANTIHELMINTIKOAK** | 2 |
| **ORGANOKLORATUAK** | 1 |
| **CARBAMATOS** | 1 |
| **HKEE** | 1 |
| **VERDE MALAQUITA** | 1 |

| IKERTUTAKO ESPEZIEA | LAGIN KOPURUA |
|---|---|
| **BEHIAK** | 17 |
| **ARDIAK** | 6 |
| **ARRAINA** | 1 |
| **OILO ERRULEAK** | 1 |
| **ERLEAK** | 1 |

| MATRIZEA | LAGIN KOPURUA |
|---|---|
| **PENTSUA** | 3 |
| **URA** | 4 |
| **ESNEA** | 4 |
| **GERNUA** | 7 |
| **GIHARRA** | 1 |
| **EZTIA** | 1 |

- ✓ 2017ko bigarren seihilekoan, Fipronila kontrolatzeko hegazti ustiategietan jarduteko programa ezarri zen, Europan elikagai alerta bat agertu zelako.

EAEn, 13 hegazti ustiategitan gutxieneko kontrola ezarri zen eta haietatik 3 Arabako Lurralde Historikokoak ziren.

Planifikatutako 3 ikuskapenetan, non tratamenduen agiri kontrola egiteaz gain gorozki eta luma laginak bildu baitziren, aipatutako ustiategi batean ere ez zen aurkitu substantziaren hondakinik, ezta haren tratamendua eman denik ere.

- ✓ Osasun Publikoko Zerbitzuek EAEko hiltegi guztietan hartu dizkiete laginak arabar jatorriko animaliei.

Emandako datuen arabera, hegaztien, zaldien eta behien 23 lagin hartu dituzte. Debekatutako substantziarik, kutsatzailerik eta gehienezko hondakin muga duen substantzia baimendurik badagoen aztertu da. Kasu guztietan, emaitzak araudiarekin bat etorri dira.

Beraz, esan daiteke arabar jatorriko animalia produktuek 1749/1998 Errege Dekretuak, substantzia jakin batzuei eta substantzia horiek bizirik dauden animaliengan eta haien ekoizkinetan uzten dituzten hondakinei aplikatu beharreko kontrol neurriak finkatzen dituenak, ezarritako hondakinen araudia betetzen dutela.

## ❖ GKEDAA (giza kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuak) KONTROLATZEKO PROGRAMA

Programa horren xedea da abeltzaintza ustiategietan material horiek kentzen direla gainbegiratzea eta enpresak, bitarteko instalazioak eta azpiproduktu horiek garraiatzen dituzten ibilgailuak kontrolatzea.

2017an honako kontrol jarduketa hauek egin dira:

- Ibilgailuetan: 8
- Bitarteko instalazioetan: 4
- Gaitasun txikiko errraustegian: 1
- Erabiltzaile jakinetan (hegazti nekrofagoak elikatzeko animalia gorpuen biltegia):

Abeltzaintza ustiategiek sortutako animalia gorpuak GKEDAAtzat jotzen dira. Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak Arabako abeltzaintza ustiategietan animalia gorpuak biltzeko zerbitzu bat dauka, **EURIA** enpresarekin sinatutako zerbitzuak emateko kontratu baten bidez.

Zerbitzu hori lurralde historikoko errepideetan eta ibilgailuetarako beste bide batzuetan agertzen diren etxe eta basa abereengana ere hedatzen da.

Bildutako gorpu gehienak **TRAGSATEC** enpresak Kantabriako Hazas de Cestos herrian duen bitarteko instalaziora eramaten dira.

Bildutako gorpuen zati txiki bat bakarrik erabiltzen da baimendutako janlekuetan sarraskijaleak elikatzeko.

| JANLEKUAK | KILOAK |
|---|---|
| **MUSITU** | 44.790 |
| **VALDEREJO** | 7.990 |

Tratamendu instalazioan, guztira, **810.943 kg** suntsitu dira, eta horretarako, **145.225.82 €** erabili.

Gainera, 2017an, **187.000 €** esleitu zitzaizkion EURIArekin izenpetutako kontratuari, ustiategietako animalia gorpuak biltzeko.

Hona hemen 2017ko bilketa jardueraren laburpena, espezieka:

| ESPEZIEA | ANIMALIA KOPURUA | PISUA |
|---|---|---|
| BEHIAK | 2.812 | 518.378 |
| TXERRIAK | 2.060 | 64.114 |
| ARDIAK | 3.038 | 128.770 |
| AHUNTZAK | 199 | 9.160 |
| ZALDIAK | 203 | 55.501 |
| OILOAK | 15.439 | 17.966 |
| UNTXIAK | 5.933 | 6.530 |
| AZERIAK | 58 | 318 |
| OREINAK | 62 | 2.790 |
| ORKATZAK | 319 | 5.068 |
| BASURDEAK | 1.372 | 25.050 |
| AMUARRAINAK | 44 | 2.635 |
| TXAKURRAK | 47 | 763 |
| KATUAK | 23 | 18 |
| BESTELAKOAK | 219 | 25.181 |
| GUZTIA | **31.828** | **862.242** |
| ABISU KOPURUA | | 6376 |

## ❖ ESNE GORDINAREN KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA (Q LETRA).

Programa horren helburua Arabako abeltzaintza ustiategietan ekoitzitako behi, ardi eta ahuntz esnearen kalitatea bermatzea da.

Merkaturatzen den esneak kalitate parametro jakin batzuetako legezko zenbait eskakizun bete behar ditu:

- zelula somatikoen kopurua
- germen kolonien kopurua
- gehitutako urik ez egotea
- antibiotiko hondakinik ez egotea
- debekatutako substantziarik ez egotea

2017ko ekitaldian honako kontrol jarduketa hauek egin dira:

### ZELULA SOMATIKOEN KONTAKETA

| | Behiak | Ardiak eta ahuntzak |
|---|---|---|
| BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO **ALERTAK** | 4 | - |
| MERKATURATZEKO MUGAK ERAGIN DITUZTEN ALERTEN ONDORIOZKO **JARRAIPENAK** | 0 | - |

### GERMEN KOLONIEN KONTAKETAK

| | Behiak | Ardiak eta ahuntzak |
|---|---|---|
| BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO **ALERTAK** | 0 | 9 |
| MERKATURATZEKO MUGAK ERAGIN DITUZTEN ALERTEN ONDORIOZKO **JARRAIPENAK** | 0 | 0 |

## ANTIBIOTIKO HONDAKINAK

<table>
<tr><th colspan="2"></th><th>Behiak</th><th>Ardiak eta ahuntzak</th></tr>
<tr><td colspan="2">BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO ALERTAK</td><td>4</td><td>1</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ALERTEN JARRAIPENAK</td><td>LAGIN OFIZIALA HARTUTA ETA KAUTELAZ GELDIARAZITA</td><td>0</td><td>0</td></tr>
<tr><td>LAGIN OFIZIALIK HARTU GABE, AGIRI BIDEZKO JARRAIPENA (OPERADOREAK EGINDAKO AUTOKONTROLA)</td><td>4</td><td>1</td></tr>
</table>

## EKOIZPENAREN HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

| | Behiak | Ardiak eta ahuntzak |
|---|---|---|
| IKUSKAPENAK | 1 | 0 |
| LAGIN OFIZIALAK | 1 | 0 |
| BAT ETORRI EZ DIRENAK | 0 | 0 |

Ez da zehapen espedienteak hastea edo Baldintzapekotasunari jakinarazpenak egitea eragin duen arau hausterik egon.

## ❖ ABELTZAINTZA ZERBITZUAREN BESTE JARDUKETA BATZUK

⇒ **Animaliak EBko eta EBtik kanpoko herrialdeetara bidaltzeko** zenbait osasun agiri egin dira:

- ✓ 23 lekualdaketa, txerri gizenduak eramateko; guztira, 3.490 txerri.
- ✓ 3 lekualdaketa, behi gizenduak eramateko; guztira, 139 behi.
- ✓ 9 mugimendu, 9 zaldi azoketara eramateko edo nor bere gauzetarako.
- ✓ 15 lekualdaketa; 18 txakur gero adopzioan emateko.
- ✓ 9 hegazti mugimendu; guztira, 14.000 eper.
- ✓ 2 lekualdaketa; guztira, 625 behi.

⇒ 2017ko ekainean, **desinfekzio arku** bat gaitu zen Aldundiaren Ibilgailu Zerbitzuan, zerbitzuko ibilgailuetarako eta ABEREkoetarako. Guztira, 40 foru ibilgailuk erabili dute, eta ABEREko 310ek.

⇒ **Hazitarako zaldiak erosteko laguntzen programa**n aurkeztu diren 5 eskaeretatik 5 onetsi dira, guztira, **1.590,92 euro**tan.

Gasteiz, 2018ko otsailaren 28a

Abeltzaintza Zerbitzua